

## **EUDELEN BATZAR OROKORRA**

**Basaurin, 2014ko ekainaren 5ean**

**ELKARTEBURUAREN HITZALDIA**

**Ibone Bengoetxea**

Alkate lagunok,

Batzar Orokor hau topalekua da; urtean behin, hemen biltzen gara, kezkatzen gaituzten gaiez eta epe labur eta luzera ditugun helburu garrantzitsuenez "aurrez aurre" hitz egiteko.

Udalerrien alorrean, eta bereziki Euskadin, konplexua da balantze orokorra egitea. Argazki bakar bat egiteak ez du balio 251 agertoki desberdinetarako; udalerri bakoitzak bere gorabeherak ditu, bere dinamika eta errealitatea.

Hala eta guztiz ere, udalerriok Euskadiko erakunde-sisteman txertatuta gaude, eta ingurune eta abagune berberak partekatzen ditugunez, gure erronkak berberak dira. Hori begi bistakoa da Eudelen, eta horrek bultzatzen du gure lana, udalerrien elkarte gisa.

Eudeleko batzordeetan, hainbat joera politikotako gobernuetan ari diren langile tekniko eta kargu hautetsiek egiten dute lan, elkarrekin. Eudelen ari garenok, ikuspegi eta iritziak kontrastatu nahi ditugu, baina, batez ere, arazoak konpondu nahi ditugu, gure udalerrien eta bertako biztanleen interesak defendatzeko. Eudelen, erantzun bateratua bilatzeko lan egiten dugu, baina beti errespetatzen dugu tokian tokiko autonomia, eta tokian tokiko gobernu bakoitzak hartzen dituen erabakiak.

Bada gure lanak zertarako balio duen erakusten duen adibide garbi bat: aurtengo urtariletik indarrean dagoen Tokiko Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun Legea egokitu egin dugu Euskadin. Eudelen Batzorde Eragileak posizionamendu argia izan du aurreproiektuaren aurrean, bai eta Legearen azken testuaren aurrean ere; beti argudiatu dugu erreforma horrek sakon aldaraziko zuela tokian tokiko eredia, Euskadiko udalerrietan dugun ereduaren "bestelakoa eta urrunekoa" zela, eta guk geure ereduari eutsi nahi diogula.

## **Zein da gure egoera Tokiko erreformen aurrean?**

Guk jarrera tinkoa erakutsi dugu erreforma horren aurrean, eta Euskadiko gainerako erakundeei helarazi diegu, Kongresuari eta Senatuari, FEMPi, eta Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioari. Bere garaian azaldu genuen bezala, ez geunden tokiko eremua erreformatzearen aurka, baizik eta erreforma-eredu horren aurka.

Gure alegazioetan oinarritzko hiru arrazoi azaldu genituen. **Lehenengoa**, tokian tokiko gobernu gisa dugun burujabetasuna defendatzea zen. Ezin ginen Lege batekin ados egon eskumenik gabe uzten bagaitu, esku-hartze eta kontrol gehiagorekin, irizpide ekonomikoak justifikazio orokor gisa hartuta. Are gehiago, badakigu zor publikoaren zama handiena ez dagoela tokiko erakundeetan, ezagutzen baititugu berezko Ministerioak emandako datuen arabera.

**Bigarren arrazoa** da gure erakunde-sistemaren eta gure ekonomia- eta finantza-ereduaren berezitasunak eta zehaztasunak babestu behar ditugula. Horixe lortu dugu, hain zuzen ere, Legean sartu den xedapen gehigarrian jasotako erregulazio berriari esker; zalantzarik gabe, horri esker Legea Euskadin ezartzeak berehala ekarriko lituzkeen kalte batzuk gutxitu egingo dira.

**Hirugarren arrazoa**, azkenik, gure kalitate-estandarrei eustea zen, eta **herriarrekiko hurbiltasunean** oinarritutako zerbitzuak eskaintzen jarraitzea.

Guretzat, eraginkortasuna eta efizientzia lortzeko, hiru oinarri banaezin behar dira: tokian tokiko autonomia, finantza-nahikotasuna eta erakundeen arteko koordinazioa.

## **Udal Legearen beharra eta aukera**

Hiru oinarri horiek izan ditu Eudelek beti Udal Legea aldarrikatzeko. Gaur egun, Tokiko Erreformak tokian tokiko autogobernua zalantzan jarri duenez, Udal Legea orain inoiz baino gehiago beharrezkoagoa da. Hauxe da **unerik egokiena** Euskadiko udalerrien eskumen-sistema eta finantzaketa-eredua finkatu eta aintzatesteko.

Euskadin sortu zaigun **aukera** hau aprobetxatu egin behar dugu, Euskadiko udalerrientzako eredu sendo bat diseinatzeko: kalitate instituzionala izango duen eta herritarren zerbitzura egongo den eredu. **Erronka handia** dugu aurrez aurre: Gobernuko hiru mailen (Autonomia Erkidegoa, Lurralde Historikoak eta Udalerriak) arteko artikulazio harmoniko eta eraginkorra behin betiko zehaztu behar dugu, eta lurraldeen arteko kohesioa eta elkartasuna baliatu behar ditugu horretarako.

Erronka horri heltzeko, martxoan Euskadiko Udal Kontseilua martxan jarri zen berriro. Kontseiluaren barruan garatu den parte-hartze prozesua eta erakundeen arteko lana nabarmendu nahi nituzke; izan ere, Kontseiluan, Herri Administrazioen Sailarekin eta Foru Aldundiekin batera lanean ari gara, zirriborro bat prestatzen; zirriborro hori izango da gure **oinarria**, gerora administrazioan eta legebiltzarrean izapidetuko dena.

Eudeleko kideoi egokia iruditu zaigu Batzar honen bitartez alkateei bertatik bertara azaltzea zein ardatz ari garen lantzen. Horretarako, Batzarraren lehen zati honetan, Herri Administrazio eta Justizia sailburu jauna, Josu Erkoreka, dugu gurekin.

Sailburuak, jarraian, testu normatiboaren xehetasunak azalduko dizkigu, baina, lehenbizi, azaldu nahi nizueke Udal Legearen zein gairen inguruan egin dituen ekarpenak EUDELe. Ardatz horiek azaldu genituen 2010ean, “Euskadiko Udal Lege baterako Oinarriak” izeneko lanean. Euskadiko Udalerrietarako, hiru funtsezko oinarri daude, eta gure ustez, horiexek izan behar dute etorkizuneko Legearen ardatz nagusiak.

### Udal Legeko 3 ardatzak

Lehen ardatza **tokian tokiko autonomia** da. Euskadiko udalerrriak berezko botere publikoa direla aitortu behar da, gainerako botereengandik desberdinak direla, eta herritarren arazoetatik gertu daudela.

Ezin dugu tokian tokiko autonomia ulertu **eskumenik** gabe, horiexek baitira haren funtsa. Udal Legeak bermea eman behar digu **Tokian Tokiko Gobernu** gisa lan egiteko, horixe baikara, helburu estrategiko batzuen arabera eta **berezkoak eta desberdinak izango diren tokiko politiken** arabera.

**Estatuko erreformak administrazio-erakunde soil gisa hartzen zuen udalak; Euskadiko udalen ereduak, aldiz, tokian tokiko gobernu gisa hartu ditugu.** Gure ereduaren oinarria **Tokian Tokiko Autonomiaren Europako Gutuna** da; bertan, eskumenen klausula unibertsala agertzen da, eta hark defendatzen du udalerrriok gure politika propioak diseinatu ahal izatea, eta gure herrietako biztanleen beharrei erantzuteko zerbitzu guzti-guztiak eskaini ahal izatea.

**Finantza-nahikotasuna eta baldintzatu gabea** da Udal Legearen bigarren ardatza, eta Europako Gutunaren beste oinarrietako bat. Udalerriak finantzaketaren bidez eraikitzen dira, eta finantzaketa hori udal autogobernua baliatzeko oinarritzko premisa da.

Etengabe aldarrikatzen duguna hauxe da: Legez esleitu daitezkeen eskumenetan behar adinako finantzaketa aurreikusi behar da, baldintzatu gabea. Hain zuzen ere, lantzen ari den zirriborroan gehitzea lortu dugun berritasun bat da, garrantzitsuena, beharbada.

Bigarren berritasun bat ere badago; **tratamendu espezifiko** bat eskatu da, eta hari esker, hainbat urtetarako finantzaketa egonkorra lortzeko **mekanismoak** ezartzea baimentzen digun, udalerriok beti aldarrikatu izan ditugun alorretarako; besteak beste, Gizarte Larrialdietako Laguntzetarako, Udal Euskaltegietarako edo Musika Eskoletarako.

**Finantzaketa asoziatua izango duen eskumen-esparru bat finkatzea lortzen badugu, gure tokiko euskal ereduak Estatuko ereduaren aurrean dituen berezitasun eta espezifikotasunen beste ezaugarri bat izango da. Horrenbestez, ezin dugu aukera bikain hori alferrik galdu.**

Tokian tokiko autonomia eta finantza-nahikotasuna aipatu ditugu, etorkizuneko Udal Legearen zutabe gisa; baina nola bermatuko ditugu zutabe horiek? **Hirugarren ardatzaren** bitartez: **erakundeen arteko lankidetzarako mekanismoen** bidez.

Geurea bezalako erakunde-sistema konplexuetan, lankidetzarako organo sendoak behar dira. Udal Legeak bi organo berri gehituko ditu, hauek dira: Tokian Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua eta alerta goiztiarrerako organoa.

**Tokian Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua** hiru erakundeentzako espazioa izango da, topagune moduko bat, arazo partekatuei aurre egin ahal izateko eta, gainera, arazo horiek konpontzerakoan herrialde osoaren ikuspegia hartu ahal izateko.

Kontseilu horretan, udalek proposamenak egin ahal izango ditugu, eta proposamen horietatik abiatuko gara geure udalerrietan bertan garatuko diren politika, plan eta programetarako.

Bestalde, **alerta goiztiarrerako organoa** izango dugu, goitik behera udalerrietako ordezkariez osatua. Hark ere **eginkizun berritzailea** izango du, eta **are garrantzitsuagoa**: tokian tokiko autonomiari buruzko arau-xedapenen eragina zein izango den aztertu eta diagnostikatzeko. Alerta goiztiarrerako organoa izango da, beharbada, gure udal autonomiaren bermerik handiena.

Sailek gehiago hartuko dute aintzat udalen autonomia, beraien aurreproiektuak prestatu aurretik, organo honek informatuko dituen gero.

Hemendik aurrera, udalek parte hartuko dugu erabakiak hartzeko prozesuetan, eta ez ikusle gisa bakarrik, baizik eta gure iritzia kontuan har dadin. Horixe nahi izan dugu beti udalerrietan.

Erabakitzeko gaitasun hori, gainera, hirugarren organo batera hedatuko da: **Herri-dirubideen Euskal Kontseilura**. Han ere udalek modu aktiboan parte hartuko dugu, ahotsa eta botoa izango baitugu. Formula berri horri esker, eragina izango dugu erabakiak hartzerakoan, udalen finantzekin lotutako gaitan; eta, bereziki, zerga itunduen bidez lortzen diren diru-sarreretan gutxieneko parte-hartzea ezartzerakoan. Eta, alde horretatik, gehitu nahi nuke **ez dugula ezagutzen antzeko erreferenterik** tokian tokiko araudien panoraman, ez behintzat Estatuan.

Horrenbestez, tokian tokiko autonomia, finantza-nahikotasuna eta hori bermatzeko koordinazio-organoak dira Eudelek Udal Legerako defendatzen dituen **hiru ardatzak**. Hiru ardatz horien bitartez, tokian tokiko gobernu irekiak eraiki ahal izango ditugu, parte-hartzaileak, gardenak eta berritzaileak; tokian tokiko gobernu modernoak, eta kalitate instituzional handikoak.

Horixe da Udal Legeak bultzatuko duen udalerri-eredu berria. Sailburu jaunari hitza eman aurretik, mezu bat helarazi nahi dizuet, gaur hemen zaudeten alkate jaun eta andre guztioi, eta gainerako erakunde eta legebiltzar-taldeei: Euskadik guztion laguntza behar du, elkarrekin lan egin behar dugu ahalik eta adostasunik zabalena lortzeko, eta, hala, Udal Legea onartu ahal izateko. Lege hori ezinbestekoa zaigu herrialde osorako, eta ezarri nahi dugun udalerri-eredu berri horretarako.

Eskerrik asko,